

2010EKO EKAINAREN 28AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hogeita zortzia.

HILABETEA: Ekaina

URTEA: Bi mila eta hamar

HASIERAKO ORDUA: Goizeko hamaikak eta erdi

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Bigarrena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Begoña Lasa Royuela
Julio Herreros Serna

ETORRI GABEAK: Aitor Aldasoro Iturbe
Fernando Boada González
Jon Kortaberria Lasa

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2010eko maiatzaren 14ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute aktarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- ZERBITZUAK KONTRATATZEA:

a.- Beasaingo udaleko zergak ikuskatzeko zerbitzua eta laguntza emateko lankidetzaren kontratazioarako baldintza pleguak onartzea eta deialdi publikoa egitea.

Hazienda Batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Deialdi publikoa egitea, Beasaingo Udalaren zergak ikuskatzeko zerbitzua eta laguntza emateko lankidetzaren-kontratazioa. Horretarako baldintza administratiboa onartu da.

1.- Prozedura: irekia publizitatearekin

2.- Izapidetzea: arrunta

3.- Litzitazio prezioa: ez da ezartzen.

4.- Klasifikazioa: L taldea, 2 azpitaldea eta A kategoria.

5.- Kontratuaren epea: lau urte.

6.- Espedientea: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

7.- Proposamen eredia: Baldintza Administratiboen pleguaren azaltzen dena.

8.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 15 egunetan.

9.- Adjudikazio irizpideak:

- Zerbitzua emateari buruzko memoria, berari atxikiko zaizkion baliabide materialak eta giza baliabideak eralazionatuz: 50 puntu.
- Hobekuntza ekonomikoak: 50 puntu.

10.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

11.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

b.- Beasaingo ludoteken eta gaztelekuko zerbitzuen kudeakea kontratatzeko baldintza pleguak onartzea eta deialdi publikoa egitea.

Gazteria Batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik.-, “Berritsu” eta “Txelotxe” ludoteka eta “Eizu Gazteleku zerbitzua kontratatzeko deialdia egitea, eta lehiaketa arautuko dtuen baldintza administratibo eta teknikoak onartzea.

1.- Kontratatzeko era eta prozedura: Lehiaketa ireki .eta ohiko prozedura

2.- Lizitazio prezioa: ez da ezarri.

3.- Espedientea: baldintza plegu administratibo eta teknikoak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

4.- Behin betiko bermea: adjudikazio aurrekontuaren %5a.

5.- Egikaritze epea: urte bete.

6.- Esleipen-irizpideak.

7.- Proposamen eredua: Baldintza Administratiboen pleguan azaltzen dena.

8.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 15 egun naturaletan.

9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

10.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek Baldintza Administratiboen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

3.- HORNIKETA KONTRATAZIOA:

Gernika Pasealekuko argiteriari buruzko proiektuan oinarrituta Leds argiteriaz hornitzeko baldintza pleguak onartzea eta deialdi publikoa egitea.

Zerbitzu Batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Deialdi publikoa egitea, Gernika Pasealekuko argiteriari buruzko proiektuan oinarrituta Leds argiteria erosteko. Horretarako baldintza administratiboa eta erosi nahi diren argien xehetasun teknikoa onartu dira.

1.- Prozedura: irekia publizitatearekin

2.- Izapidetzea: arrunta

3.- Lizitazio prezioa: gastuaren gehienezko muga: 91.084,2 € (%18a BEZ barne)

4.- Hornidura-epea: kontratua sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, 4 aste.

5.- Espedientea: administrazio-baldintza eta xehetasun teknikoak, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

6.- Proposamen eredua: Baldintza Administrazioaren pleguaren 2 eranskinean azaltzen dena.

7.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 15 egunetan.

8.- Adjudikazio irizpideak:

- Proposamen ekonomikoa: 40 puntu.
- Eskaintzaren kalitate teknikoa: 50 puntu.
- Berme-epea handitzea: 10 puntu.

9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

10.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailerak administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK.

Eskaera eta galderen atalean, honelako informazioa eman du Alkate jaunak:

OLARANGO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

Alkateak esan du inskribatzeko epea ireki egin beharko dela eta lehen AMENABAREK egindako etxebizitzekin egin zen moduan, bere proposamena dela Etxebideen izena emanda daudenen artean etxebizitzak esleitzea eta Beasainen erroldatuta egotearen (bi azken urtetan segidan edota azken 10 urtetan, guztira bost urte segidakoa izan gabe) baldintza eskatzea.

Izen-ematea aurten izango balitz, ordainsariak 2009. urtekoak izango lirarteke kontutan hartu beharko direnak.

Bildutakoei ondo iruditu zaie. Dena dela hobeto aztertzekotan gelditu dira.

KUDEATUZ PARTEHARTZE-PROGRAMA

Alkateak programa horren berri eman du adieraziz, udal desberdinetan ematen ari den programa dela. Udal bakoitzak gaia aukeratzen du, enpresa espezializatu batek aztertzen du eta ondorioak ezagutzera ematen ditu. Erabaki behar dena da ondorio horiek lotura-indarra duten ala ez.

Kale Nagusia oinezatzeari helduta, Alkateak proposatzen duen gaia trafikoaren ordenazioarena da.

SOLDATAK

Gai honen inguruan Alkateak esan du erabaki beharrekoa dela zinegotzien ordainsariak jaitsi behar diren edo ez, bere garaian funtzionarioen soldata eguneratu zenean, zinegotziena ez zelako eguneratu.

ABALAK

Egun dagoen egoera ekonomikoa ikusita, obra eta horniduretatik kanpo Udalak burutzen dituen kontratazio-administratiboen ondorioz aurkeztu beharreko abalen kopurua aztertu egingo dela esan du Alkateak eta datorren Gobernu Batzorderako proposamen bat prestatuko dela.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamabietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.